Es necesario que todas y todos caigamos en la cuenta y tengamos presente que, aunque no lo digan, hay lesbianas y gays en todas partes y culturas, y que no responden a ningún estereotipo: son altos, bajos, rubias, morenas, no afeminados ni masculinas...como tú. Les gusta salir con los amigos, el fútbol, el cine... como a ti.

No te puedes quedar al margen, nadie debe pensar que su tarea no es importante a la hora de construir una sociedad más diversa y tolerante.



## BUENAS PRACTICAS PARA PONER EN ACCION:

### Si tu amiga/o te dice que es gay o lesbiana:

Agradécele la confianza que ha tenido contigo y dile que sabrás corresponderla.

No le juzgues, si tienes creencias religiosas que no aceptan la homosexualidad, busca otros momentos de tranquilidad para confrontar ideas con tu amiga/o.

Respeta su confidencialidad y se discreto/a. Revelará su homosexualidad y lesbianismo a otras personas a su ritmo y cuando crea conveniente.

Explícale que para ti sigue siendo la misma persona, y que nada tiene por qué cambiar en vuestra relación.

Un abrazo, un beso, una broma... puede transmitirle que no le tienes miedo. Un poco de humor nunca viene mal.

Tu amigo/a no cambia porque sea gay o lesbiana. No permitas que deje la cuadrilla por su orientación.

No te preocupes si tu amigo/a siente atracción por ti y tú no le correspondes. Trata la cuestión como si fuera una persona del sexo contrario por la cual no sientes atracción.



## QUE HACER SIEMPRE Y EN CUALQUIER CASO CON ESTE TEMA:

No hagas chistes ofensivos ni permitas que otros lo hagan.

Trata con normalidad todo lo que tenga que ver con el lesbianismo y la homosexualidad.

**SI TIENES DUDAS O CUESTIONES QUE QUIERAS ACLARAR, PUEDES ACUDIR A ALDARTE PARA INFORMARTE SOBRE CUALQUIER ASPECTO RELACIONADO CON LA HOMOSEXUALIDAD Y EL LESBIANISMO.**



# Zeu bezalaxeko mutilak eta neskak




**NORK BERE JOERA SEXUALA, EDOZEIN DELA ERE, ASKATASUNEZ BIZI ETA AGERTU AHAL IZATEKO GUNEAK ZABALDUZ JOANGO GARA.**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritza

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO
Enplegua, Gazteria eta Kirola Saila

K/ Berastegi, 5 - 5., dptoa: 8 - 9
Abando metro geltokia
48001 Bilbao
Tfnoa.: 94 423 72 96
aldarte@aldarte.org
www.aldarte.org

ALDARTE

Lesbianak eta gayak, adierazten ez badute ere, toki guztietan daudela konturatu behar gara denok eta ondo gogoan hartu. Toki eta kultura guztietan aurkitzen ditugu eta ez diote estereotipo jakin bati erantzuten: badira altuak eta txikiak, ilegorriak eta beltzaranak, maritxu edo mari-mutil itxurarik gabekoak... zu zeu bezalakoak. Lagunekin ateratzea maite dute, futbola ikustea, zinera joatea... zuk zeuk bezalaxe.

Ezin duzu hori albo batera utzi, inork ez du pentsatu behar berak ez duela zereginik gizarte askotarikoagoa eta toleranteagoa eraikitzeko jardunean.



## GAUZATU BEHARREKO OHITURA ONAK:

### Lagunak gay edo lesbiana dela esaten badizu:

Eskertu zugan izan duen konfiantza eta esaiozu berdin jokatuko duzula berarekin

Ez egin juzkurik. Homosexualitatea eta lesbianismoa onartzen ez duen sinesmen batekoa bazara, bilatu une lasaiak zure lagunarekin ideia horiei buruz eztabaidatzeko.

Errespetatu isilpean esan izana, eta izan zaitez diskretua. Bere homosexualitatearen berri beste inori eman nahi badio, berak erabakiko du noiz den une egokia.

Esaiozu zuretzat pertsona bera izaten jarraitzen duela, eta kontatukok ez duela harremanak zertan aldatu.

Besarkada bat, musu bat, txantxa bat...horrek adierazi diezaioke ez diozula beldurrik. Umore pixka bat ez dator batere gaizki horrelakoetan.

Gay edo lesbiana izanagatik ere, lagun hori ez da aldatzen. Ez dezala lagun taldea utzi bere joera dela kausa.

Ez kezkatu zure laguna erakartzen baduzu eta hark zu ez ordea. Saia zaitez erakartzen ez zaituen beste sexuko edonor balitz bezala tratatzen



## NOLA JOKATU GAI HONETAN, BETI ETA NONAHI:

Ez egin txiste iraingarririk eta ez utzi besteei egiten.

Modurik normalenean aritu lesbianismoarekin eta homosexualitatearekin lotura duen orotan.

**ZALANTZARIK BADUZU EDO BESTE EDOZER ARGITU NAHI IZANEZ GERO, ALDARTERA JO DEZAKEZU, HOMOSEXUALITATEAREN ETA LESBIANISMOAREN INGURUKO GAIEZ INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO.**



# Chicas y chicos como tú




**ENTRE TODAS Y TODOS PODEMOS CONSTRUIR UN ESPACIO EN EL QUE EXPRESAR Y VIVIR EN LIBERTAD Y RESPETO MUTUO NUESTRA ORIENTACION SEXUAL.**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Juventud y Acción Comunitaria

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO
Area de Empleo, Juventud y Deporte

K/ Berastegi, 5 - 5., dptoa: 8 - 9
Abando metro geltokia
48001 Bilbao
Tfnoa.: 94 423 72 96
aldarte@aldarte.org
www.aldarte.org

ALDARTE
CENTRO DE ATENCION A GAYS, LESBIANAS Y TRANSEXUALES
GAY, LESBIANEN ETA TRANSEXUALEN ATENZIO ZENTROA